



Arartekoaren 2020R-2577-18 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrius dezala babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko eskaera ukatzeko erabakia.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidera onartu zuen herritar baten kexa. Herritar hori ez zegoen ados Etxebizitzako sailburuordeak babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko eskaera ukatuz hartutako erabakiarekin.

Kexa-idazkian, interesdunak adierazi du bere bizikidetz-unitatea bost kidez osatuta zegoela, eta horietako hiru adingabeak zirela. Ildo horretatik, bizi duen egoera larriaren berri eman dio Arartekoari, bere seme bik endekapen-gaixotasun larria dutelako. Zehazki, seme adingabe batek II. Graduko mendekotasun larria dauka onartuta eta gurpil-aulkian mugitzen da. Gainera, beste bat I. graduko mendekotasun moderatuko egoeran dago, berrikusteko fasean, gaixotasuna argi larriagotu zaiolako. Halaber, kexagileak dio duela gutxi gurpil-aulkia erabiltzea preskribitu diotela azken horri, ezin delako ibili.

Azkenik, erreklamatzailleak dioenez, bizi diren merkatu libreko etxebizitza ez dago egokituta. Hala, higiezinak bainuontzi bat baino ez duela azaldu du eta bi semeak ezin dituela behar bezala garbitu. Izan ere, dioenez, etxebizitzan ezin dituen garbitu, askotan joan behar izan dute udal kiroldegira, garbitu behar dituen bakoitzean.

Azkenik, esan du 2017tik dagoela "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda, eta orain arte Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak ez du proposatu babes publikoko errentamendu-araubideko etxebizitza bat adjudikatzea. Nolanahi ere, berriz esan du etxebizitzak ez duela gurpil-aulkian ibiltzeko behar besteko lekurik.

2. Aurrez azaldutakoa kontuan hartuta eta "*Gure Señeak*" elkarteak aholkatuta (elkarte honen helburua gaixotasun arraroak eta ezgaitasun egoera bereziak dituzten haurren bizi-kalitatea hobetzea da), erreklamatzailleak bere udalerriko udalaren gizarte gizarte zerbitzuetara jo zuen, bere egoeraren berri emateko eta eguneroko bizitzan dituzten zailtasunak adierazteko.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek azaldutako egoera baloratu zuten eta, ondorioz, Etxebizitzako sailburuordeari bidali zioten eskaera bat familiari babes publikoko etxebizitza egokitu bat zuzenean adjudikatzeko.





Hala ere, abuztuaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak esleipen zuzenaren eskaera ukatzea erabaki zuen, adierazitako egoera 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotako salbuespenen barnean ez zegoela iriztean. Zehazki, "etxebizitza premia berezia duten beste talde batzu"en aipamena interpretatzean, Etxebizitza Sailburuordetzak maiatzaren bizikidetzta-unitate hauek baino ez ditu kontuan hartzen: maiatzaren 14ko 1/2013 Legean definitutako kalteberatasun berezia duen pertsonaren bat egotea, botatze judicial bat duena eta, gainera, oinarrizko gizarte zerbitzuek egiaztatutako gizarte-bazterketako arriskuan dagoena.

Ebazpenaren jakinarazpena kexagilea eta haren familia-unitatea bizi diren udalari bidali zitzaion.

3. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzta-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Bere idazkian, kexagileak azaldutako egoeraren berri eman zuen Arartekoak eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen, zeinean Etxebizitzako sailburuordeak etxebizitza egokitu bat errentamendu-araubidean adjudikatzeko eskaera, haren udaleko gizarte zerbitzuen txostenak babesten zuena, ukatzeko izan zituen zioak azalduko baitziren.

Azkenik, ezer erabaki aurretik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion sail horri. Horiek ez errepikatzearren, geroago jasoko dira.

4. Laguntzeko eskaerari erantzunez, sailak egindako txosten bat sartu zen erakunde honen erregistroan. Bertan, azaldutako egitateak baieztatu, eta babes publikoko etxebizitza errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko eskaera ukatzeko erabakia berretsi zen, haren ustez azaldutako kasua ez dagoelako aitorten hori ahalbidetuko luketen kalteberatasun bereziko kasuetan.

Ildo horretatik, sailak bidalitako arrazoibideak bereziki aipatzen ditu Etxebizitzako sailburuari aitortutako eskumenak, eta azpimarratzen du araudiaren eraketak ez diola betebeharrak gisa ezartzen adjudikazio hori; aitzitik, aukerako eskumen bat da, kasuz kasu baloratzea eskatzen duena.

Horregatik, hau dio sailak bidalitako erantzunean:

- "Entendemos que este problema puede solucionarse por otros cauces que no impliquen necesariamente la adjudicación directa de una vivienda en arrendamiento.

(...)

Por lo tanto, deberá atenerse a lo establecido con carácter general en los artículos 47 y siguientes de la Orden de 15 de octubre de 2012 en relación con la adjudicación de viviendas de protección oficial y alojamientos dotacionales en régimen de arrendamiento."





5. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko martxoaren 14ko epaiak (C-415/11 Auzia) eta ondorengo erabaki judizialek¹ agerian utzi dute herri-agintariek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarrizko eskubideak bermatzeko.

2. Gauzak horrela, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 7. artikulua ezartzen du administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea duela etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko.

Gainera, 3/2015 Legearen 3.v) artikulua honako hau jotzen du etxebizitza edo bizitoki egokitzat: bere tamainagatik, kokalekuagatik eta ezaugarriengatik pertsona, familia edo bizikidetzaren unitate jakin baten bizitegitarako egokia den etxebizitza edo bizitokia.

Aurretik adierazitakoa osatzeko, Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen² 4. Ohar Orokorrak etxebizitza bat egokitzat hartzeko zenbait baldintza ezartzen ditu, gastuei aurre egin ahal izatea, esaterako.

3. Arartekoak babes publikoko errentamendu-araubideko etxebizitzaren adjudikazioa arautzen duen prozedura arrunta ezagutzen du. Izan ere, higiezinak emateko proposamenek etxebizitza behar duten pertsonen arteko lehia irizpide zorrotzak betetzen dituzte, baremazio-sistema baten arabera. Ezin da ahaztu, ordea, etxebizitzaren arloko araudiak berak aipamen asko aurreikusten dituela, euren berariazko etxebizitza premiengatik tratatu berezia jasotzen dituen kasuak ohiko adjudikazio-prozeduratik salbuestea ahalbidetuz.

¹ Besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015).

² Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena aplikatzen dela gainbegiratzear arduratzen den organoa. Testu osoa hemen eskuragarri: https://conf-dts1.unog.ch/1%20SPA/Tradutek/Derechos_hum_Base/CESCR/00_1_obs_grales_Cte%20Dchos%20Ec%20Soc%20Cult.html#GEN4



Izan ere, 3/2015 Legearen 32.2. artikulua honako hau xedatu du berariaz:

- *“Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak, udalek, kontzejuek eta toki-erakunde txikiek beraiek sustatutako babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduratik kanpo utz ditzakete ordezko etxebizitza izateko eskubidea bermatzera bideratutako etxebizitzak eta **edozein desgaitasunek eragindako mendetasun-egoerak edo gizarte-bazterketaren arriskuko egoerak konpontzera bideratuak**”.*³

Halaber, 39/2008 Dekretuaren 12.3. artikulua, martxoaren 4koak, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoak, hau xedatzen du berariaz:

“Udaletako edo foru-aldundietako organo eskudunek beren-beregi eskatuta, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailean zeregin hori duen organoak, ebazpen bidez, artikulua honetako 1. zenbakian araututako esleipen-prozeduretatik kanpo utzi eta zuzenean esleitu ahal izango dizkie etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak terrorismoaren biktimei, genero-indarkeriaren biktimei eta eremu degradatuetako jarduera-eremuetan bizi direnei, horiek arautzen dituen araudian sartzen direnak hartuko direla horrelakotzat. Eskaerarekin batera, dagokien gizarte-zerbitzuen txostena ere aurkeztu beharko da.

(...)

Halaber, organo horrek etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak esleitu ahal izango ditu zuzenean, Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzek, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako beste sail batzuek modu arrazoituan eskatzen dutenean, etxebizitza-premia berezia duten kasuetan,”

Aski ez balitz, gainera, abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak, “Bizigune” Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duenak, aukera hori jasotzen du programaren beraren barruan laga eta kudeatutako etxebizitzetarako. Zehazki, hau dio:

- *“«Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programan sartutako etxebizitzak dekretu honetan xedatutako esleipen-prozeduratik kanpo utz ditzake administrazio-organok berak eta babes ofizialeko etxebizitzaren kasu berberetan”.*

Gainera, prozedura berezia berariaz araututa ez badago, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindura bidaltzen du (genero indarkeriaren biktimei diren emakumeei zuzendutako etxebizitzaren alorreko ekintza

³ Azpimarra Arartekoarena da

positiboko neurriei buruzko Agindua). 6. Artikuluan, hain zuzen ere, prozedura arautu bat aurreikusten du. Prozedura horretan, arreta gizarte zerbitzuen txosten tekniko bat egiteko eskatzen da, eskatzailearen egoera pertsonal eta familiarrari eta haren etxebizitza egoerari erreferentzia egingo diena.

Are gehiago, eskaera hori arlo horren ardura duen zinegotzitzak edo interesduna bizi den udalerriko alkatetzak sinatu behar du, azkenean Etxebizitza Sailburuordetzak aukeran ebatz dezan egokia denetz babes publikoko etxebizitza bat adjudikatzea.

4. Hain zuzen ere, etxebizitzaren arloan etxebizitza premia berezia duten taldeak berariaz definitzen duen araudi autonomikorik ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, oro har, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak (aurrerantzean, maiatzaren 14ko 1/2013 Legea), 1.2 artikuluan deskribatzen dituen kalteberatasun bereziko kasuetara jotzen du.

Zehazki, hauek dira artikuluko horrek zerrendatzen dituen kalteberatasun bereziko kasuak:

- *"a) Familia numerosa, de conformidad con la legislación vigente.*
- b) Unidad familiar monoparental con al menos un hijo a cargo.*
- c) Unidad familiar de la que forme parte un menor de edad.*
- d) Unidad familiar en la que alguno de sus miembros tenga reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento, situación de dependencia o enfermedad que le incapacite acreditadamente de forma permanente para realizar una actividad laboral.*
- e) Unidad familiar en la que el deudor hipotecario se encuentre en situación de desempleo.*
- f) Unidad familiar con la que convivan, en la misma vivienda, una o más personas que estén unidas con el titular de la hipoteca o su cónyuge por vínculo de parentesco hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad, y que se encuentren en situación personal de discapacidad, dependencia, enfermedad grave que les incapacite acreditadamente de forma temporal o permanente para realizar una actividad laboral.*
- g) Unidad familiar en la que exista una víctima de violencia de género.*
- h) El deudor mayor de 60 años."*

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jakinarazi duenez, zuzeneko adjudikazioa aplikatu ahal izateko, gainera, era banaezinean, alde batetik, bizi den etxebizitzaren botatze judizialeko egoera gertatu eta, bestetik, gizarte zerbitzuek gizarte-bazterketako egoera bat egiaztatu behar dute.

Errealitate hori agertu da sailak bidalitako erantzunean, Ararteko honi berariaz hau jakinarazi dionean:

- *"Horren harira, premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuei dagokionez, egungo egoera ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, Etxebizitzako sailburuordeak modu arrazoituan erabaki du ahulezia-egoera bereziren batean dagoen pertsona bat duten bizikidetzta-unitateen kolektiboa izatea aipatu kolektibo hori (maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak, hipoteka zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak, eta hura ordezkatu edo aldatzen duen araudiak ezarritako eran), baldin eta beren bizilekua den etxebizitzatik judizialki botako badituzte eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek gizartean baztertuta egoteko arriskuan daudela egiaztatzen badute."*

5. Azken batean, kontua da araudiak sakabanatuta daudela eta ez dagoela salbuetsitako kasuen azalpen sakonik eta, beraz, gaur egun babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko erabakia, hein handi batean, etxebizitzaren arloko eskumen hori daukan organoak hartutako erabakiaren arabera da. Gaur egun, Etxebizitzako sailburuordea da, apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zuena) 14.1 f) artikulua arabera.

Laburbilduz, argi eta garbi aplikatzen da etxebizitzaren arloan eskudun den organoak zuzeneko adjudikaziorako eskubidea aitortzeko orduan duen aukerako ahalmena.

6. Kasu honetan, oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako txosten bat aurkeztu arren, zeinean agerian uzten baitzen erreklamatzailaren bizikidetzta-unitateak etxebizitzaren premia berezia duela, eta 3/2015 Legearen 32.2 artikulua arauz aurreikusi arren mendekotasuneko eta desgaitasun mota orotako egoerarako ordezkotako etxebizitza ematea, Etxebizitzako sailburuordeak eskaera ezestea erabaki du azkenean, haren ustez kasu hau ez delako sartzen Sailburuordetzak lehenago ezarritako aurreikuspenetan.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar erreklamatzailaren bizikidetzta-unitatea hiru adingabek osatzen dutela. Gainera, espedientearen dauden agirien arabera, haietako bik endekapen-gaixotasuna dute diagnostikatuta, mugikortasunaren ohiko garapena galarazten diona. Horrela, ondo egokitutako etxebizitza bat ez dutenez, udal kiroldegira joan behar dute euren burua garbitzeko ekintzarik oinarrizkoenak egiteko.



Testuinguru horretan, hau esan behar du Arartekoak: Horretaz gain, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zuten estatuek hura betetzen dutela egiaztatu behar duen organoa da Haurren Eskubideen Batzordea; gainera, orientazioak eman behar ditu hitzarmen hori behar bezala interpreta dadin hura ezarri behar den eremu guztietan. Batzorde horrek, 2013an, [14. Ohar Orokorra egin eta onetsi zuen; ohar horrek ezartzen du haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin](#).⁴.

Dakizunez, ohar orokor horrek ezartzen ditu haurren (eskubideen titular diren heinean) interes gorena behar bezala kontuan hartzeko betekizunak. Haurren interes gorena kontuan hartu beharra dago, batik bat, erabaki judizialetan eta administratiboetan baina baita hurrei indibidualki eragiten dieten neurrietan, eta haur guztiei edo haur jakin batzuei buruzko legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, legegintza- zein aurrekontu-ekinbideak eta irizpenak onesteko prozeduren etapa guztietan ere.

Batzordeak azpimarratu du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes gorena:

- Eskubide substantiboa: haurrek beren interes gorena lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko hainbat interes neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoak estatuek berez bete beharreko betebeharra ezarri du, berehala aplikatu beharrekoa dena (berehalako aplikagarritasuna) eta auzitegietan aipa daitekeena
- Interpreta daitekeen oinarritzko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurraren interes gorena modu eraginkorrean beteko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarritako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.
- Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurraren edo haurraren izan ditzakeen ondorioak (onak edo txarrak) jaso beharko ditu barnean. Prozedurazko bermeak izan behar dituzte haurraren interes gorenaren ebaluazioak eta zehaztapenak. Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan. Ildo horretan, erabakia hartzea dagokien instantzietan azaldu beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurraren interes gorentzat,

⁴ **Nazio Batuak. Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea.** 14. Ohar Orokorra (2013), ezartzen duena haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Linean eskuragarri]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf



zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola neurtu diren haurren interesak beste gogoeta batzuekin alderatuz

Azken batean, haurren interes gorena kontuan hartzeak haurren beharrianak egoki neurtzea dakar. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak erabat eta modu eraginkorrean gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta.

Beraz, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek haurraren izan ditzakeen ondorioak (aldekoak eta kontrakoak) jaso beharko ditu barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuekin alderatuz

7. Azaldutako guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Etxebizitza Sailburuordetzak ez zituen behar bezala kontuan hartu kasuaren berezitasunak eta ez zuen ondo baloratu udalaren oinarritzko gizarte zerbitzuek egiaztatutako etxebizitza premia berezia.

Arartekoaren ustez, adingabeak egun bizi diren higiezinan behar bezala garbitu ezin ahal izateak eta espazio ezaren nahiz higiezina egokituta ez egotearen ondoriozko mugek honako hau pentsaraztera garamatza: momentuz ez dute behar bezala beteta etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat legez okupatzeko duten eskubidea. Gainera, horri oinarritzko gizarte zerbitzuen esku-hartzea gehitu behar zaio zeinek, txosten bat eginez, etxebizitza egokitu batean ordezeko etxebizitza ematea gomendatu baitzuten.

Testuinguru horretan, Arartekoak gogoratu nahi du 3/2015 Legearen 32.2 artikulua, ordezeko etxebizitza emateko egoerak berariaz aipatu ez ezik, beste inguruabar batzuk ere jasotzen dituela, hala nola mendekotasuneko, desgaitasun mota orotako edo gizarte-bazterketa arriskuko egoerak.

Beraz, eman lezake kasu honetan 3/2015 Legearen 32.2 artikuluan babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko eskaera onesteko kausa subjektiboak betetzen direla.

8. Azkenik, bere erantzun-idazkian sailak dio etxebizitzaren adjudikazio berezia arautzen duten manuak Etxebizitzako sailburuaren aukerako eskumen gisa eratzen direla, eta ez direla legezko agindu bat, halako moldez non hura Sailburuordetzak egindako kasu zehatzaren analisiaren arabera onartuko den.

Ados dago Arartekoa, administrazio-agintariak izan ditzakete eta, izatez, badaukate, aukerako ahalmenak normaltasun osoz. Eskumen sorta hori, ez da edozein xede betetzeko bideratu behar, ezpada Legeak berak nagusitzat jo duen xede; hots, kasu honetan bezala, etxebizitza duin, egoki eta irisgarria legez okupatzeko eskubide subjektiboa bermatzea.



Izan ere, *“la primera reducción de este dogma de la discrecionalidad se opera observando que en todo acto discrecional hay elementos reglados suficientes como para no justificarse de ninguna manera una abdicación total del control sobre los mismos (...) la Ley otorga con normalidad poderes discrecionales a la Administración, poderes en cuya aplicación la Administración mantiene una reserva de prudencia para valorar las situaciones concretas, pero estos poderes discrecionales están ellos mismos encuadrados por la Ley que, primero, los otorga, y, en segundo término, los ordena hacia fines concretos, regulando también la competencia y el procedimiento concreto para su ejercicio.”*⁵

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, ordea, honako hau jakinarazi dio Arartekoari bere erantzun-idazkian:

- *“Adjudikazio-prozedura horien erreglamendu-garapena egiteke dago. Kontuan izan behar dugu Etxebizitzaren Legeak gutxi-gorabehera berrogei bat igorpen egiten dituela Legea garatzeko ondoren egin ziren erreglamenduetara. Erreglamendu horiek, gure ustez, 20 ara-xedapenetan sailka daitezke. Beraz, garapen hori legegintza bat baino gehiagotan osatu beharko da, kontuan hartuta lan horrek hausnarketarako denbora eskatzen duela, eta etxebizitzaren arloan arau-esparru berri bat sortuko duela.”*

Amaitzeko, Auzitegi Gorenaren 2006ko maiatzaren 29ko epaiak, bere hamaseigarren zuzenbideko oinarrian, argi eta labur hitz egin zuen aukerako eskumenari buruz:

- *“Hoy, la doctrina afirma y las diversas Salas de este Tribunal lo han refrendado en numerosas sentencias que, al menos, son siempre elementos reglados por la Ley, aun en los actos producidos en el ejercicio de una potestad discrecional: el hecho de su existencia misma (esto es si la potestad ha sido atribuida por la norma o no), su extensión o ámbito (esto es, los casos condiciones bajo los que puede ser utilizada), la competencia (esto es, la determinación del órgano u órganos a que se atribuye) y el fin (es decir, la finalidad concreta que debe satisfacer el acto que tendrá que ser necesariamente, una finalidad pública). Aunque «la discrecionalidad es, esencialmente, una libertad de elección entre alternativas igualmente justas, o si se prefiere, entre indiferentes jurídicos porque la decisión se funda en criterios extrajurídicos (de oportunidad, económicos, etc.) no incluidos en la Ley y remitidos al juicio subjetivo de la Administración», **no debe olvidarse tampoco que esta indiferencia no es total, sino relativa, pues la decisión que se adopte deberá respetar, en todo caso, los principios constitucionales básicos (entre ellos el principio de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, proclamado en el artículo 93 de la Constitución y los***

⁵ **GARCÍA DE ENTERRÍA, Eduardo.** “La lucha contra las inmunidades del poder en el Derecho Administrativo (poderes discrecionales, poderes de gobierno, poderes normativos). Bartzelonako Unibertsitatea, 1962.



*propios principios generales del Derecho, los cuales informan todo el ordenamiento jurídico (artículo 1.4 del Código Civil) y **también por tanto, la norma habilitante que atribuye la potestad discrecional**, como así lo exige también «el sometimiento pleno a la Ley y al Derecho» que la Constitución (artículo 103.1) impone a las Administraciones Públicas.»⁶*

Arartekoak balioa eman lioke etxebizitza babestuak adjudikatzeko prozedura berezi bat egoteari, zeinak talderik kalteberenei etxebizitza premiarik larrienak asetzea ahalbidetuko bailuke. Horregatik, Arartekoaren iritziz komeni da babes publikoko etxebizitza zuzenean adjudikatzeko kasu bereziak arau bidez argi eta zehatz mugatzea. Segurtasun juridikoa eman behar zaio adjudikatzeko prozedura bereziari, hura osotasunez arautuz eta behar duen eduki subjektibo eta objektiboa emanaz, horrela 3/2015 Legeak berak daukan azken xedearekin bat ez datozen erabakiak ekiditeko.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak segurtasun juridikoa eta zuzenbidearen ziurtasuna bilatu behar ditu adjudikazio bereziko prozeduretan ere, anbigutasunak hainbat interpretazio ezin ekartzeko.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA:

Azaldutakoa ikusita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erreklamatzailaren adjudikazio zuzenaren eskaerari emandako ukoa berrazter dezala, haren udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek egiaztatu baitute etxebizitza premia bereziko egoeran dagoela.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gogoratzen dio 3/2015 Legean aurreikusitako erregelamenduak garatu behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzen den etxebizitzaren arloko araudiari segurtasun juridiko eta ziurtasun handiagoa emateko.

⁶ **Auzitegi Gorena.** 2006ko maiatzaren 29ko epaia. [[ECLI: E.S:TS:2006:3897](#)]